

## **2013-11-26ko OHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko azaroaren hogeita seian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzón Iturbe Saizar eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, eta Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

**UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.** (2013-10-29).- 2013ko urriaren 29ko ohizko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

### **BIGARREN GAIA**

**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 175. zenbakitik 203. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN GAIA**

**ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.** Etxez-etxeko zerbitzua eskaintzen du udal honek eta kontratu baten bidez eskaintzen du, ez zuzenean, kudeaketaren bidez. Orain dagoen kontratua bukatutzat eman da eta berriz kontratatzeko espediente hasi beharko da.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko batzorde Informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusi da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hauxe onartu du:

Lehena.- Etxez-etxeko zerbitzua kontratatzea, zerbitzuen kontratu baten bidez.

Bigarrena.- Baldintza ekonomiko-administratiboko plegu partikularrak eta baldintza tekniko pleguak ere onartzea.

Hirugarrena.- Kontratuaren gastua onartzea.

Laugarrena.- Kontratatzeko prozedura hastea.

Bosgarrena.- Kontratuaren esleipena Alkateari delegatzea.

## **LAUGARREN GAIA**

**UDALBILTZAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.-** Udal hau Udalbiltza Partzuergoko kide denez, bertatik jakinarazi zaio udalari, 2013. urteari dagokion ohiko kuota ordaindu behar duela.

Ekarpen gisara herriak duen biztanle kopuruaren arabera ordaintzen dela eta Iruraren kasuan hori, 3.000 € direla.

Hori dela eta, udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek, udalbatzarrean, partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute.

## **BOSGARREN GAIA**

**ARNASGUNEAK HEDATUZ, ETORKIZUNA LANDU MOZIOA, ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-** Mozio hau aurkezten da:

``Abenduaren 3a, euskararen eguna. Aurten ere, euskararen egunean izango da tarterik ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako. Eta, horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze-zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko atak zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere, aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeke, ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta egun zein egoera daukagun ikustea. Eta, gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistiko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitatek abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnaguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerrria euskararen arnagunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gune hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurrira egokituz.

Udalerrri euskaldunetan biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerrri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituzenez ezinbestean, udalerrriok funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerrri euskaldunetako administrazioak, batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea; eta herritarrok, bestetik, euskararen geroan jada jokatzeko dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziazkoak dira euskarari dagokionez, eta ondorioz, baita bertako herritarrek ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak eta norbanakook egunerokoan ditugun hizkuntz ohiturek, jarrerak eta joerak eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnaguneak zabaltzeko. Iruratik inguruko herrietara, Iruratik Euskal Herrira.

Irurako Udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

- ▲ Iruran euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerrri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.

- ^ Udallerri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Irura bezalako udallerriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea.
- ^ Gure herria euskarari dagokionez erreferentziazko udallerria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Iruran garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.
- ^ Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako, kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizazioari.
- ^ Irurako Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.”

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartzea erabaki du.

### **SEIGARREN GAIA**

**GALDE-ERREGUAK.-** Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena **EGIAZTATZEN** dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA